



‘Sexualitatearen Koloreak’ gida Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak duten lankidetzaren hitzarmen markoaren burutako proiektuetako bat da. 2016an zehar Aniztasuna lantzeko gida batek beharrezko izango lituzkeen gazte ikuspegiko osagaiak identifikatu, eragileekin harremanetan ezarri eta gida errealitate bilakatzeko pausoak eman ziren.

Abiapuntua

Aniztasunaren kontzeptua LGTBI+ kolektibotik haratago doa. Zeharkako balore gisa txertatzeak ezinbestean dakar dauden identitate, izaera eta orientazio eredu guztiak berdintasun egoera batean eta onarpenaren ikuspegitik mahai-gaineratzea. Hala ere, ezin daiteke alde batera utzi historikoki LGTBI+ kolektiboak bizi duen eta oraindik ere bizi duen bereizketa egoera eta honek LGTBI+ kolektiboko gazteen ongizatearengan duen efektua. Hezkuntzan Aniztasunaren balorea zeharka txertatzeko oinarri teoriko eta praktikoak eskaintzen ditu gida honek, oinarri izan dituelarik hainbat LGTBI+ gazte eta eragileekin izandako harremana diskurtsoaren eraketarako. Hezitzaileentzat baliogarria izan nahi duen materiala da, pertsona gazteekin egunerokoa aniztasuna abordatzeko egiten duten lanean erabiltzeko erraza eta praktiko den tresna. Hori dela-eta, martxoaren 22an ‘Sexualitatearen Koloreak’ Gida aurkeztuko dugu.

Aniztasuna zeharkako balore gisa txertatu

‘Sexualitatearen Koloreak’ gidaren diskurtsoa egituratzeko oinarria izan da gazte eta LGTBI+ kolektiboaren eragileen diskurtsoa. Honetarako, Aldarte, Bizigay, Gehitu, EHUKo LGTB Liga, Errespetuz eta Chrysalis Euskal Herria elkarteak elkarrizketatu ditugu.

Mintzaldi hauen helburua aipatutako kolektiboek bizi izan dituzten edota beraien gertukoenetan detektatzen dituzten beharrez hitz egitea zen, identifikatu ostean hauei erantzuna emateko egin zitezkeen proposamenak lantzeko. Hauek izan dira ‘Sexualitatearen Koloreak’ gidaren egituraketarako oinarriak.

Sexualitatearen Koloreak Gidan zortzi puntutan bildu dira aipatutako erronkak:

1. Pertsonaletik jendartera: pixkanakako hobekuntzak

Eragile guztiek adierazi dute pixkanaka aurrerapausoak eman direla eta bereziki jendarte mailan igarri daitekeela onarpen jarrerarekiko gero eta joera handiagoa dagoela. Honetarako ezinbestekoa izan dira bai LGTBI+ kolektiboetatik nahiz administrazioetatik emandako pausoak.

Hala ere, oraindik gazteek hainbat zailtasun aurkitzen dituzte, bereziki LGTBI+ kolektibokoak direnak: bazterketa egoerak eguneroko harremanetan, eskubide eta askatasunen berdintasun osoaren galera, hezkuntza eredu guztietan gaia txertatzeko erronka... Hau dela eta, orain arte egin den lanarekin jarraitzea ezinbestekoa da administrazioak eta elkartegintzaren arteko zubiak eraikiz, gazte beharrei eta proposamenei arreta ezarri eta, batez ere, gaiari buruzko informazioa gizarteratuz eta hezkuntzaren papera indartuz.

2. Eskubide osoko hiritartasuna: errespetua, elkarrekikotasuna eta onarpena

Tolerantzia eta onarpena bi kontzeptu desberdin gisa ulertzen eta bizitzen dira. Nahiz eta errespetuan oinarritutako hainbat harreman garatu, gazteek eta eragileek adierazi dute “maitasunean” eta bestea aintzakotzat hartzean oinarritua dagoen onarpenaren bidean dagoela oraindik gizartea.

Edozein bizitza pribatuk baliabide berdinak izatea eta gizarte mailan era berdinean baloratua eta onartua izatea ezinbestekoa da. Alegia, Aniztasunak errealitate bilakatzen dituen egoera guztiekiko elkarrekikotasun harreman bat izatea gizarte bezala. Norbera den modukoa izatea baimentzetik, norbanako bakoitzaren identitate, izaera eta orientazio konkretuak garatzen laguntzera pasatzea.

3. Zeharkakotasun falta informazio galeran bihurtzen denean

Aniztasunaren mapa osoa buruan izatea beharrezkoa da egoera bakoitzari egokitasunez erantzun ahal izateko eta informazioa ahalik eta erarik osoenean helarazteko. LGTBI+ kolektiboaren egoeran soilik zentratzeak eta erronka zabalagoa dela kontuan ez hartzeak gazteekin egunero harremanetan dauden eragileek formakuntza egokiena ez izatea ekar dezake. Eta, honek, gazteei Aniztasunari dagokionean akonpainamendu egoki bat egin ezin dutela sentiaraztea.

Aniztasunaz hitz egiterakoan burura etortzen da LGTBI+ kolektiboa. Kontzeptuen arteko lotura honek, ordea, zeharkakotasuna era egokian txertatzea oztokatzen du. Izan ere, ezartzen den neurri zein politika orok identitatea, izaera eta orientazioa bizitzeko edozein era kontuan izan beharko luke.

4. Zeharkakotasuna: arreta berezia ulertzen duen onarpen kontzeptuaz

Orain arte aipatutako puntuek ezin dute gizartea bazterketa egoerak jasaten dituen LGTBI+ kolektiboaren testuingurua ahaztera eraman. LGTBI+ fobia errealitate bat da oraindik ere eta honi erantzuna ematen lehenak administrazioak izan beharko lirateke.

Honetarako, egun dauden neurriak betetzen direla, jadanik badauden programak eta proiektuak indartzea eta LGTBI+ kolektiboa ahalduntzea dira gakoak.

5. Eraldaketarako tresna: hezkuntza

Ezin ahaztu daiteke hezkuntzak gizarte sinesmenak aldatzeko duen gaitasuna. Testuinguru formal eta ez-formala Aniztasunaren balorea landu eta sustatzeko gune aproposak dira, bertan burutzen baitute hainbat nerabe eta gaztek beraien gizarteratze prozesuaren zati handi bat.

Gainera, hezkuntza etorkizuneko hiritarrak eraikitzen joateko espazio moduraulertzen da. Hortaz, aldaketarako pauso erabakigarrietako bat bizitzaren esparru honetan egin behar da.

6. Diskurtsoaren koherentzia

Diskurtsoa egunerokotasunean, erabiltzen diren baliabide guztietan eta edozein ikasgaietan txertatu beharra dago, ez soilik gaia konkretuki lantzeko egiten diren esku-hartze puntualetan.

7. Itzaropena eman eta zubiak eraiki

Hezitzaileen mezuek itzaropena piztu behar dute laguntza eske gerturatzen diren gazteengan.

Gainera, hezitzaileen papera baliabide gehiago bilatzen laguntzeko prest egotea ere izan daiteke. Norberaren mugak onartuz, baina baliabide bilaketa egokia ziurtatuz.

8. Gazte batzuek egina gazte guztiei begira

Gidak eta antzeko baliabideak edozein gazterentzat egokituak eta erabilgarriak izan beharko liriteke beraien errealitateauler dezaten. Gazteek baloreak eralda ditzakete, baina baita igorri ere. Are gehiago, batzuetan hezitzaile papera betetzen dute. Hau dela eta, Aniztasunaz nahiz sexualitateaz ezer ez dakien norbaitek ulertu ahal duen baliabidea sortzea litzateke helburu ideala.

Sexualitatearen Koloreak: teoriatik haratago doan baliabidea

Sexologiatik eta Gizarte Zientzietatik nahiz feminismoetatik egin diren ekarpen teorikoak bildu dira hezitzailearen eduki maila nahiz baliabide praktikoak hobetze aldera.

Gidaren hasieratik honen oinarri izan diren arlo teorikoek azaleratutako kontzeptuak argitzen dira hiztegi baten bitartez, gerora talde nahiz banakako arreta helburu duen Sexologiaren kontzeptuak argituz. Aniztasunari dagozkionak argitzeko Sexologiatik eta EGK-ko diskurtsotik eratorzen diren kontzeptuak eta “aniztasunerako betaurrekoak” aurkezten dira gidan.

Bukatzeko, onarpenaren ikuspegian oinarritutako gerturatze teorikoak barnean duen arretarako jarreraren nondik-norakoak eta adibide praktikoak eskaintzen dira. Atal honetan, ardatz nagusia lantze jarrera da, honek baimentzen baitu gazteen irizpideak eta nahiak abiapuntu hartuta esku-hartze nahiz erantzun bat diseinatzea.

Guzti honetaz gain, azken urteotan argitaratutako baliabide gutxi batzuen aurkezpena eta Aniztasunari arreta egokia eskaini ahal izateko hainbat guneri (elkarteak, Sexu-informazio bulegoak, Gune Anitzak...) buruzko informazioa ere bildu dira.